

Getariako *Humilladero*: Santa Kruz Ermita zaharraren historia

FERNANDO TXUEKA ISASTI
Sendagile Ginekologoa

Laburpena:

Getariako Santa Kruz ermita zaharra humilladeroa izenez deitu izan da. Humilladero honek eraikin erlijiosoa izanik ere, gizarte-zeregin garrantzitsua bete zuen herriaren bizitzan. Lehen aipamena Juan Sebastian Elkanoren testamentuan aurkitzen dugu. Erdi Aroko eraikuntza gotiko eder hura mendeetan herriaren gorabehera historiko guztien testigu izan zen. Sute eta mendeetako gerrate guztietatik onik atera zen. Hala ere, azkenean, 1935ko abenduan herriko sarrera eragozten zuelako udaletxeak aho batez suntsitzea onartu zuen, garaiko adituen iritziei jaramonik egin gabe eta gupidarik gabe eraitsia izan zen. Humilladeroaren hondakineko harri landuek urteetan beste ibilaldi korapilatsua izan zuten, Ignacio Aginaga Telleria jaunak harri hondarrak bildu eta Getariarako berreskuratu egin zituen humilladeroa berreraikitzeke ametsarekin, baina gerora, urteen buruan, pixkanaka bere arrastoak betiko galdu egin ziren.

Hitz gakoak: Getariako Santa Kruz Ermita. Humilladero gotikoa. 1935ko suntsiketa. Berreraikitzeke ametsa.

Resumen:

Históricamente la antigua ermita Santa Cruz de Guetaria, ha sido conocida con la denominación de humilladero. El humilladero, a pesar de ser una edificación religiosa, ha tenido un lugar destacado en la sociedad de Guetaria. La primera referencia la encontramos en el testamento de Sebastián Elkano. Esta edificación gótica de la Edad Media, ha sido testigo

de todos los avatares de nuestra villa. Supo salir airoso de todos los incendios y guerras. A pesar de ello, por fin, en 1935, haciendo oídos sordos a los peritos y sin ningún miramiento, el ayuntamiento determinó por unanimidad su derribo, alegando que impedía el acceso a la villa. Las piedras labradas de la escombrera del Humilladero, hicieron un penoso recorrido. El señor Ignacio Aguinaga Tellería, hizo lo indecible para ir recopilando los restos del humilladero, a fin de volver a reconstruirlo dicho, cosa que no se ha podido lograr, pues al cabo de los años han ido desapareciendo dichos restos definitivamente.

Palabras clave: La ermita Santa Cruz de Getaria. Humilladero gótico. El derribo de 1935. El sueño de su reconstrucción.

Summary:

Historically the former Santa Cruz chapel of Getaria went under the name of ‘humilladero’ (literally ‘humbling place’, it is a religious place with a cross or image usually found at the entrance to a village). Despite being a religious building, the ‘humilladero’ played an important part in Getaria’s life. The first reference to it is found in Sebastián Elkano’s will. This Gothic building from the Middle Ages was witness to all the vicissitudes of our town. It managed to escape all the fires and wars. In spite of that, in 1935, ignoring the experts and without consideration, the council voted unanimously to pull it down alleging that it was blocking access to the town. The carved stones in the heap of rubble of the ‘humilladero’ made an arduous journey. Ignacio Aguinaga Tellería attempted the impossible task of gathering the remains of the ‘humilladero’ piece by piece so as to rebuild it, but he has been unable to do so as the remains have gradually disappeared completely over the years.

Key words: The Santa Cruz chapel of Getaria. Gothic ‘humilladero’. The demolition in 1935. The dream of its reconstruction.

Sarrera

Getariako hiribilduak Erdi Aroan izan zuen garrantzia, bere ondare historikoari azaletik begiratzuz gero nabari dezakegu. Gaurdaino iritsi zaizkigun eraikuntza erlijioso edo zibilei gainbegiratu emanetz, hiribilduaren XIII. mendeko hiri-egituraketak adierazten digu bere garrantzia. Mendez mende herri

hau astindu duten gerrate, suntsitze eta erreketak ikaragarriak nozitu arren, harrigarria badirudi ere, funtsean mantendu egin ditu eraikin hunkigarri eta miragarriak XX. mendera arte¹.

Behe Erdi Aroa Getariarentzat ez zen ilunpeko garaia izan, askok uste izan arren, alderantziz baizik. Bere historiako benetako *urrezko aroa* izan zuen. Gipuzkoa eta Kantauriko nabigazio-portu eta merkataritzan hiribildu nagusietakoa izan zen XIII. mendetik XV. mendera arte. Aldi berean balea ehizatuta eta honen gaiak esportatuta diru-sarrerak ikaragarriak izan ziren. Honek guztiak eta beste hainbat eragilek bideratu zuten oraindik ere Getariako herrian ikus dezakegun ondare historiko bikaina².

Garai horretan itsasoak inguraturik hiri-garapen hau antolatu zen gune geologiko berezian, hastapenetik hiri-egituraketa guregana iritsi zaigunaren antzera egin zuten. Hegoaldera harresiak, XII. mendean eraikiak, nafar erregeen garaian³, sei kaleak paraleloki. Bakoitza harresiko ateetan hasi eta iparraldera eliza inguratuaz lotzen ziren Beheko Katrapunako pasabidean⁴. Hortik *Sanantongo* mendi azpian zegoen portu zaharrarekin lotzen zen marea beherakoan oinezko pasabide xume batekin, eta marea goian zenean txalupetan igarotzen zuten itsasoa, bare bazegoen. Hiru mendetan zehar eraiki zituzten estilo gotikoan guregana iritsi diren eraikuntza zibil eta erlijiosoak. Eliza ondoan ditugu euskal gotiko zibilaren etxe adierazgarriak: Zarautz eta Olano dorretxeak, eta baita oraindik orain eraberritu diren San Roke kalean lerroan dauden etxe gotikoak ere.

Getariako eraikuntza erlijioso gotiko nagusiak, gure ustez, hauek dira: lehenik *Salvatore Donearen* herriko eliza nagusia, *Askizuko Martin Donearen* eliza, kai zaharreko *San Pedro de Ugarte* mariñelen antzinako eliza, 1813ko uztailaren batean frantsesek suntsitua, eta, azkenik, herriko ate nagusiaren aurreko *Santa Kruz Zaharraren* ermita edo *Humilladeroa*.

(1) Getariako historiak azken mila urteotan izan diren gerrate guztiak pairatu dituela adierazten digu, 1936ko azken gerra zibila izan ezik.

(2) Ik., TXUEKA ISASTI, Fernando, 2008, "Getariako erregearen balea eta Donostiako probes-tua", *RSBAP*, LXIV, 93-158.

(3) TXUEKA ISASTI, Fernando. Item. 97-101.

(4) Antzinako Getariako hiribildu barnean sei kale ziren. Ekialdetik mendebalera honako hauek izan ziren: *Iparkalea* (orain desagertuta dagoena), *Zakaio* (orain Aldamar deritzona), *Nagusia*, *Berraso* (egun Elkano kalea dena), *San Roke* kalea eta, honen jarraipena, *Iribarrena* kalea, eta, azkenik, *Plateria* kalea edo *Aitza* deitzen dioguna eta *Gaztakape* hondartzaren amildegian suntsituta dagoena. Kale hauek guztiak *Salvatore* eliza inguratuz kantoi eta eskaileraz biltzen dira *Artzape* deituriko gunean, eta hortik *Katrapuna*-ko arkupetik igarota pasabide bakarretik portura iristen zen.



1873ko grabatua, Rodolfo Sprenger-ena

Izenaren argibideak

“Santa Kruz Zaharra” edo “Santa Kruz Haundia” *Humilladeroa* izenez ezagutu izan da historian zehar, eta orain bere istorioa da hona dakarkiguna⁵. *Santa Cruz de Abajo*, *Santa Cruz de la Villa* eta *Santa Cruz la Mayor* izenez aipatuta ere ikusi dugu. Izen hauekin deitu izan da batik bat. Gure ustez, Getariako beste ermita edo santutxo batetik bereizteko izango zen, *Santa Cruz de Arriba*⁶ edo *Santa Cruz de Agerregitxo*⁷ deitzen zitzaionetik bereizteko, alegia, zeren nahasketa asko sortu baitu Getariari buruz egin diren monografiatan. Ondorioz, biak bereiztea zaila izan da⁸. Ermitatxo edo santutxo hori ere suntsitu zuten⁹, eta non zegoen ez dago garbi, baina, dirudienez, Akerregi inguruko galtzadaren bidegurutze batean egon zitekeen¹⁰.

Kokagunea eta egitura gotikoa

Oro har *humilladeroak* ermitak ziren, eta herrietako irteeran edota bidegurutzetan egoten ziren. Harri landuz egindako *gurutzea* izaten zuten atariko

(5) Getarian beste eliza eta ermitak batzuk ere baziren, garai eta estilo ezberdinetakoak. Galdutakoak hauek ditugu: San Anton uharteko ermita, San Lazaro eta San Anton lazareto edo legenardunen ospitalea, Santa Ana ermita, San Gregorio zaharra, San Pedro Uhartekoa portu zaharrean, Santa Kruz Txikia edo Agerregitxokoa, Madalena basiliza eta San Sebastian Ospitalekoa. Egun mendetan zutik iraun duten hauek ditugu: San Prudentzioko ermita garbi eta berezia izen bereko auzoan, eta San Blas edo San Andres hots egiten dioguna Aiako Elkano auzoan.

(6) LEKUONA, Manuel, 1983, *Idazlan Guztiak*. 7. Kondaira (E). Kardaberaz bilduma-28, 306.

(7) 1739an honela idatzita ikusi dugu: *seroria de la ermita de Sta Cruz de Aqueregicho, jurisdicción de Guetaria* (...). Iruñeko Gotzaitegiko Agiritegia. Olló.- c/ 1577-10. zenb.

(8) Getariari buruz egindako monografia ederrenetan, begirune osoz, Antxon Aguirre Sorondo-rena aipatu beharra dugu.

(9) Lehenengo Karlistadan, herriko alkatearen aginduz, ziurrenik erre egin zuten Errerietako errebal eta Akerregi inguruko baserri guztiekin batera.

Gogoan dugu getariar batek esana: alegia, Elkanoko beste Santa Kruz ermita Getariaren lur-eremuan dagoela. Guk ermitaren ondoko mugarriak dituen hiru herrien banaketari begiratu diogu eta ez dugu G ikusi hori ziurtatzeko. Entzuna dugu, bai, getariar emakumeak *santakruzetan* erromes ermita horretara joaten zirela elorri zuria bedeinkatzera, gero itsasontzietako mastan eskegitzeko.

(10) Informazio eta aipamenak gurutzatu ondoren, on Emeterio Sorazu getariar antropologoa ere kokaguneaz diogun iritzi berekoa da.

babesean, eta kate batzuekin hesia egina zuten sarreran¹¹. Horrela, behartsuek justiziaren eskuetatik libre gelditu ahal izateko aterpea izaten zuten.

Getariako *Humilladeroa*, eraikin gotikoa, txundigarria eta bikaina zen aldi berean. Getariako harresietatik kanpo zegoen. Garai batean harlatzez egindako *herriko plazaren* ondoan zuen kokalekua (...) *en la ermita de Santa Cruz de Abajo que es en la plaza publica de esta villa de Guetaria (...)*¹², eta ez herri barruan egile batzuek hori bazioten ere¹³. Herriko portale nagusi¹⁴ eta sarrera zenaren aurrez aurre zegoen. Portale horrek herri barruan zuzenean *Berraso* kalea zuen, gaur egun *Elkano* kalea dena, hain zuzen. *Humilladeroaren* orubea portale hartatik hego aldera zuzenean hogeita hamar metrora zegoen. *Lormendiko* aldapa hasten zen galtzada zaharraren ondoan eta aldi berean *Errerieta* kale hasierak Askizurako galtzadaren bidegurutzean zuen kokalekua¹⁵. Juan Sebastian Elkanori buruz 1872an egindako liburu batean, haren azken borondate edo testamentuari erantsitako eranskinetan honela jasota ikusi dugu: (...) *La ermita de Santa Cruz estaba en la plaza, en el edificio mismo donde existe la fuente publica desde 1798. (...)*¹⁶.

Bere arkitektura gotikoa aztertuz, eraikuntza zahar honen oina laukia zen. Sei edo zazpi metro inguru zituen alde bakoitzean. Barrendik begiratuta angelu bakoitzetik hasieran zutabe biribilak sortzen zitzaizkion, eta, goialdean elkartuz, zutabe xumea osatzen zuen (fustean). Lau zutabe-buruetatik, beste lau ojiba-arku moldura berdinekin elkartzen ziren gailurreko giltzarrian, sabaia edo ganga osatuz. Egiturak, oro har, Salbatore eliza nagusiaren zutabe eta

(11) Oraindik Getarian bada zutik dagoen harrizko gurutze landua. Urtetan zehar egindako lekualdaketak medio, baliteke gurutze hau *Humilladeroan* zegoena izatea. Getariako “gurutze” eder hau aipatzen du Zufiaurre jaunak (Zufiaurre Goya, Jose, 1995, *Cruceros, cruces, picotas y santutxos en Guipuzcoa*, Donostia, 33).

(12) Gipuzkoako Protokoloen Agiritegi Historikoa. Oñati. Zestoako eskribautza. Ygnacio de Enbil eskribaua, 2/1754, 22-23. or.

(13) Getarian *herriko plaza* XX. mende hasiera arte harresiz kanpo zegoen. Kokagune hau ondo finkatu gabe zutelako, zenbait idazlek ermita herri barnean zela adierazi du.

(14) Getariako harresiak Karlistaden ondoren birrinduta gelditu ziren arren, XX. mende hasiera arte oraingo Kale Nagusiak zuzeneko sarbiderik ez zuen izan. Horixe ikus daiteke argazki zaharretan.

(15) Argazki zaharrek zuzen erakusten digute non zegoen. Ik. Aguirre Sorondo, Antxon, 2000, *Getaria, entre el mar, el cielo y la montaña*, Getariako Udala, 60-62. or.

(16) SORALUCE, Nicolas, 1872, *Historia de Juan Sebastián Del Cano*, Vitoria. Otras notas al Testamento, XXI. zenb., 337. or. Hemen aipatzen diren ohar horiek Joakin Aldamar jaunak egileari bere garaian emandakoak zirela dio.

arkuen antzerako itxura zuen. Aurrealdean eraikinak alde bakoitzean zutabe biribilekin arku gotikoa osatzen zuen, ia aurpegi osoa hartzen zuena. Guztia lau isurialdeko teilatuak estaltzen zuen, eta ura erretenetatik lau izkinetako gargoletan biltzen zuen.

Eraikin hau zehatz-mehatz noiz egin zen ez dakigu. Pentsa daiteke Salbatore eliza nagusiaren eta Askizuko San Martin elizaren garaian bertsean eraiki zela, beren egitura, estilo eta erabilitako harlatzek adierazten digute-nez. Beraz, oker handirik gabe esan dezakegu XIV. mendearen amaiera eta XV.aren hasiera bitartean egin zela.

Humilladeroaren barnealdeko irudi erlijiosoak nola banatuta zeuden jakitea zaila da. Hala ere, 1782ko aipamen bat badugu: ermita honek erretaula zuela eta bertan zeuden irudiak egokituta Askizuko San Martin elizan ipini zirela: (...) Aplicacion del retablo de la ermita de Santa Cruz, sita en jurisdiccion de la villa de Guetaria, a la parroquial de Askizu.(...)¹⁷


Eraikin erlijiosoa eta gizarte-zeregina

Euskal herrietan ohikoa zenaren antzera *Humilladero*ko Santa Kruz ermita, gune sakratua zenez gero, funtsean erlijiorako erabili zuten, baina bere ateburu aurrean herri baten erabilpen sozial eta antolakuntzaren ardatza izatearen eginkizuna ere izan zuen mendeetan. Eremita honetan, jarduera bikoitza zuelako, hitzartutako erabakiak eta egindako enkanteak betebeharreko eginkizunak ziren, gune sakratuan emandako hitza saihestu ezinekoa zelako alegia. *Humilladeroaren* erabilpen hau harresiz kanpo zegoelako getariar guztientzat ardatza izan zen, bereizketarik egiten ez zelako eta han emandako hitza denek onartzen zutelako agian. Hiri barneko herritarrak eta *Errerietako* errebal edo aldirikoak, *Askizu* eta *Meaga* lurraldeetakoak eta beste zenbait nekazari milakodun hortxe biltzen ziren herriko antzinako bitzar ireki eta beneragarri haiek egiteko¹⁸.

Herri-lurretako zuhaitzak ustiatzea, gartzainondoan eta beste zenbait arbolaren inausketa antolatzea, etab. hortxe erabakitzen zen: (...) *Remate de los trasmochos de los montes concejiles- En el humilladero de Santa Cruz de*

(17) Archivo de los condes de Motrico - Casa de Churruca. 182. dok. <http://www.irargi.org/cgi-bin>

(18) GOROSTIDI, Angel, *¡Guetaria!*, eskuizkribu mekanografiatua, argitaragabea. Urkixo fondoa, Koldo Mitxelena, Donostia, 227. or. Kokagunea jakin aurretik egile honek lan honen ale bat osorik eskuetan zuen.



la Plaza de la Villa (...) ¹⁹. Urtero herrirako hain beharrezkoa zen gartzainaren enkantea ere hor egiten zen: *Castaña concegil Martin de Ysasti por once reales. En las puertas de la Ermita de Santa Cruz de la Plaza publica de esta villa de Guetaria (...) edo En las puertas de la Ermita de Santa Cruz de la Plaza de la villa (...) a 13 dias del mes de Septiembre de 1699 (...) pusieron en remate (...) la fruta de la castaña deste presente año (...) y parecio a dicha almoneda Nicolas de Bonechea y ofrecio (...) seis ducados de vellon y no parecio otro*

(19) LEKUONA, Manuel, 1983, *Idazlan Guztiak*. 7. Kondaira (E). Kardaberaz bilduma-28, 292.

*que mayor postura hiciese (...)*²⁰. Herriarentzat beharrezko ziren hornidurak (saski edo otarreak adibidez) eta elikagaiak jendeari saltzeko eskubidea izateko enkanteak ere hortxe egiten ziren: herrian ardoa, haragia, olioa eta beste zenbait janari saltzeko eskubideen enkantea, alegia. Elizari zegokion hasikin edo *primicia* jasotzeko izendapena ere enkantean egiten zen: *Remate de la Primicia en Juan Bautista de Yrulegui por 272 dcs. Y dio por fiadores a Pedro de Azkoitia y Domingo de Narbazta En el humilladero de la Ermita de Santa Cruz de la Villa de Guetaria dia de Sra Santa Ana, 26 de Julio de mil seiscientos noventa y nueve (...)*²¹.

Lehenik enkante edo “subasta” bakoitzaren berri ematea Salvatore elizako pulpitutik egiten zen, mezetako eskaintza garaian ozenki *publicata* aditzera emanda, edo deialdia eginez, herri osoa jakinaren gainean egon zedin: *(...) precediendo publicata del pulpito de la parroquial desta villa hoy dia al tiempo del Ofertorio de la Misa Popular dijeron que ponian y pusieron en venta y remate todos los trasmochos de mijos y robles de los montes concejiles (...)*²². Errematea igandeko meza nagusiaren ondoren izaten zen. Kanpainsinuaz deia egin ondoren argizarizko kandela pizten zen, eta eskaintzen lehiak kandela agortu eta itzali bitartean irauten zuen. Eskaintza altuena egin zuenak bederlatzi egunen buruan fidatzailea izendatzen zuen. Fidatzaile hark bere ondasunekin ziurtatzen zuen enkanteko irabazleak ez zuela iruzurrik egingo.

Badakigu herriko eraikin zibilak errentan hartzeko erremateak ere hor egiten zirela. *Santa Kruz Beheko Humilladeroaren* aurrean 1668an egin zen enkantea egin zelako dakigu Getariako behartsuentzat *San Sebastian Ospitale* zibila berreraikitzen ari zirela. Ospitalea *Errerietako* goialdean eraiki zen, eta lehen Karlistadan herriko alkatearen aginduz su emanda suntsitu zen inguruko etxeak bezala. Getariako eraikin zibil zahar hura herritarrek oso maitea zuten. *San Sebastian Ospitalea* genuen herriko gaixo eta behartsuen babesleku, eraikin ederra eta funtzionala aldi berean, bere ermita eta guzti²³.

(20) Item. 271 eta 286. or.

(21) Item. 284. or.

(22) Item. 293. or.

(23) Getariako herrian galdetu ondoren, *San Sebastian Ospitaleak* herritarren oroimean ez du iraun. Haren arrasto edo hondakinen berri eman zezakeenik ere ez dugu aurkitu. Guk, kokalekuak arakatuz eta idatziz jaso eta emandako aipamenetatik, oker handirik gabe esan dezakegu *Errerietako* errebalaren atzean eta goialdean zegoela, Lormendiko aldaparen ondoan, orain Balentziaga kalea denaren amaieran eskuin aldean. Badakigu, hain zuzen, suntsitu eta gero orubean hilerrri zaharra egon zela.



1912. Humilladeroa, Errietako errebelean

Berreraikitze-lanak gelditu egin ziren, dena harriz egitea posible ez zelako. Proiektu merkeagoa aurkeztu zen. Harlangaitza erabiliko zen hormetan, eta harri landua izkinetan besterik ez. Erremate hartan herriko agintari eta ospitaleko maiordomo eta herritarrak izendatu ziren. Honela dio agiriak: *En la ermita de Sta Cruz de Abajo que es en la plaza publica de esta villa de Guetaria a veinte y seis del mes de agosto de mil seiscientos y sesenta y ocho años por fee de mi el essno. Se juntaron los señores capitan y sargento mayor Don Pedro de Zarauz y Aldamar caballero de la orden de Santiago alcalde ordinario de esta dicha villa y su jurisdiccion por Su Majestad. Basilio de Campos y Juan Bautista de Basurto rejidores de ella, el capitan Don Pedro de Echave caballero de la orden de Calatrava, el capitan Martin de Mirubia, D. Judas de Basurto, Asencio de Basurto, Francisco de Eznal, Benito de Ganbo, Francisco de Guarnico, Pedro de Echave, Domingo de Argoain y Martin de Sagarzurieta²⁴ vecinos de esta villa patronos del ospital de San Sebastian extramuros de ella (...)*²⁵.

(24) Archivo de la Real Chancillería de Valladolid. Pleitos Civiles. Taboada (Olvi.). 287.1. 921. or.

(25) Gipuzkoako Protokoloen Agiritegi Historikoa. Oñati. Zestoako eskribautza, Ignacio de Embil eskribaua. 2/1754, 22 eta 23. or.

Humilladero honen aurrean 1672an egin zen, halaber, Urkiola familiako ondasunen enkantea eta errematea. Auzi luzea izan ondoren, azkenean urkiolartarren Getariako etxe eta baserrien enkantea burutu egin zen²⁶. Ondasun haietako batzuk Elkano familiaren suntsitutako dorretzeko orubearen hondakinak ziren, eta On Pedro de Echave Asu kapitain getariarrak 7.500 dukat ordainduta bereganatu zituen. Prozedura juridikoa 1678an epai betearazle batekin amaitu zen. Auzi luze hartan honakoa irakurri dugu: (...) *En la plaza publica de la Noble y Leal Villa de Guett^a y en frente de la hermita de Sancta Cruz de ella al punto que el relox dio las tres horas de la tarde, el dho dia viernes veinte y tres del dho mes de Diz.re del dho año de mill seis.os y setenta y dos (...)*.

Aipamenak

Historian, *Humilladero*aren lehen aipamena Elkanok bere testamentua 1526ko uztailaren 26an egindakoa dugu. Hura Salbatore-bezperan, abuztuaren lauan, zendu zen eta hurrengo egunean bere gorpua uretaratu egin zuten. Elkanok bere azken borondatean Karlos V.a enperadore espainiarrak zor zionetik, Getariako beste eliza eta ermitak bezala, gogoan izan zuen herriko *Humilladeroa*: (...) *Item, mando a Santa Cruz de la dicha villa un ducado. (...)*²⁷.

1625ean Lope Martinez de Isasti²⁸ historialariak gure herriko ermitak izendatzen dituenean, aipamena honela egiten du: (...) *Santa Cruz en la cuesta que va Zumaia (...)*. Askizura doan galtzada zaharrari buruz ari zaigu hemen.

1664an Salbatore eliza nagusirako *bi serora* behar izan ziren. Elizako patronatua udalarena zenez gero, berari zegokion aukeraketa egitea eta bete-behar hartarako *Elena de Idoeta*, garai hartan *Humilladero*ko serora zena, aurkeztu zen leku bat ordezkatzeko²⁹ (...) *presentan a Elena de Idoeta, serora de Santa Cruz de la villa*³⁰.

(26) Auzi hau Valladolideko Chancilleriaraino iritsi zen. Oso luze eta nahaspilatsua izan zen, guztira 1060 orrialde baino gehiago izan zituen. Prozedura 1646an hasi eta 1678an amaitu zen epai betearazleaz.

(27) Archivo General de Indias. Sevilla. Patronato 38.N.1. R: 1c.

(28) MARTINEZ DE ISASTI, Lope, 1972, *Compendio Historial de la M.N y M.L. Provincia de Guipúzcoa*, Bilbo, 187. or.

(29) Eliza eta ermitetako serora izateko aurkeztu egin behar izaten zen, eta eskaintza horretan diru-kopuru bat ordaindu ere bai, aukera zezaten.

(30) Iruñeko Gotzaitzegiko Agiritegia. Oteiza.-c/ 1061- 13. zenb.

1731n serora hil egin zen eta lanpostua hutsik gelditu zen: *seroria vacante en la ermita de Sta Cruz del Humilladero, en Guetaria (...)*³¹. Hildako serora *Ana de Echave* izan zitekeen, eta haren ordeztu *Joshepa de Bonechea* jarri zuten. Hau 1767an hil ondoren, *Maria de Egañak* hartu zion txanda.

Hemen Santa Kruzeko gainerako serorak aipatuko ditugu, lehenago adierazitako salbuespen eta zalantza guztiekin³²:

1701ean, *Isabela Zabala* hil ondoren, *Mariana Bonechea* 36 dukat eskainita onartu zuten serora izan zedin.

1739an *Isabel Zabala* izen bereko beste serora bat ageri da, eta hau hil ondoren *Ana M^a Arregui* alarguna agertzen da lanbide horretan³³.

Historiako gertakizunak

XVIII. mende amaieran, 1794 eta 1795. urteetako Konbentzio Gerrak Getaria bete-betean harrapatu zuen. Gipuzkoako Aldundia frantses-erasoaren ondorioz Getarian babestu zen, eta getariar ziren ahaldun nagusiek Getariako Batzordea eratu zuten, Joakin M^a Berroeta Aldamar eta Jose Fernando Echabe-Asu Romero buru zirela. Espainiatik bereizteko Gipuzkoako probintziaren independentzia-aldarrikapena egin zuten. Gertakizun haietan Getariako herria frantses-tropen mendean egon zen, eta haiek *Humilladeroa* okupatu, laidotu eta donautsi egin zuten. Basilean bakeak egin ondoren, militarren zainketan lanetarako erabili zuten. Horren guztiaren ondorioz, bere antzinako izaera sakratu eta errespetagarria galdu egin zuen. Iheslari eta jazarritakoen babesleku izateari ere utzi egin zion.

Urte gutxiren buruan, 1798. urte inguruan, erdigunea edo sabaia erori egin zitzaion, eta orduko On Manuel Agote alkateak beste zerbaitetarako erabiltzea erabaki zuen. Moldaketa batzuk egin ondoren, herri atariko iturri bihurtu zen. 400 urte igaro ondoren, herriarentzat *Humilladeroa* edo santutxo izateari eta bere erlijio zein gizarteko gaietarako eginkizuna galdu egin zuen betiko. Harrezkero herritarrek *Iturri Zarra* hots egin zioten³⁴.

(31) Item. Villanueva.-c/ 1793-3. zenb.

(32) Ik. lanaren hasieran *Izenaren argibideak* atala.

(33) AGUIRRE SORONDO, Antxon, 2000, *Getaria, entre el mar, el cielo y la montaña*, Getariako Udala, 153.

(34) XX. mendearen hasieran Gorostidik *Humilladeroa* herriko iturri gisa ezagutu zuela aitortzen du. (cf. 18).



Humilladero, Lormendiko aldaparen galtzara ezkerrean

1808an Getaria Napoleonen indarrek berriro atzeman eta menperatu egin zuten. Eliza eta ermitak kuartel eta arma- eta bolbora-biltegi gisa erabili zituzten. Egoera hark bost urtez iraun zuen. 1813ko uztailearen batean frantsek alde egin zutenean, suteak, suntsiketa eta sarraskia besterik ez ziguten utzi herrian. Herritarrei beste hainbat txikizio eta hondamendi eragin ondoren, *San Anton* mendiko ermita eta kai zaharreko *San Pedro* elizei, bolbora-biltegi zirenei, su eman eta leheritu egin zituzten. Era berean, *Humilladero*aren ondoan zegoen *Madalena* eliza ere birrinduta utzi zuten, eta betiko galdu zen. Getariako herriak, ankerkeria haien ondorioz, bere edertasun, oroimen eta ondare historikoaren zati garrantzitsuak betiko galdu zituen.

Berriro ere gerra piztu zen. 1833an lehen Karlistada hasi zen bere gogorkeria guztiarekin. Getaria karlistek inguratua zuten, eta harresien barrualdean liberalak zeuden. Karlistek eraso jo aurretik eta eraso geldiarazteko asmoz, orduan herriko alkate zen Marcos Alcorta jaunak *Errerieta* kaleko etxeei eta *Akerregi* auzoko baserri guztiei gupidarik gabe su ematea agindu zuen. Agindu haren berri agiri arrunt eta hotz batez parte eman zien Gipuzkoako agintariei³⁵. Hala ere, karlistek eraso jo egin zuten, Domingo Egaña getariarra buru zutela. Artilleriaren babesean harresiak lehertu eta, herria eta Salbatore eliza sutan zirela, Getariako hiribildua karlistek bereganatu egin zuten. Gertaera gordin eta anker haien ondorioz, herria barne eta kanpo erabat erraustuta eta suntsituta gelditu zen. Herri barruan zegoen Erdi Aroko *San Lazaro* legenardunen ospitaletxo, *Sahatsagakoko Santa Ana* eta *Aguerreguichoko* ermitak garai horretan desegin zirela pentsatzen dugu. Herriko behartsuen *San Sebastian Ospitale* zaharra ere gorabehera haietan galdu zen, lehen aipatu dugunez.

Gerrate hartan Getariako herrian Erdi Aroko eraikin zibil eta erlijiosoak zein tamainataraino suntsitu ziren adieraziz, Jose Antonio Basurto eta Pedro Agote getariarrek 1838ko irailaren 20an herriaren izenean Gipuzkoako agintariei egindako txostenean honela zioten³⁶: (...) *una de las primeras disposiciones que he tomado desde mi instalacion como mas indispensable para formar una idea del estado lastimoso a que esta reducido este pueblo y su jurisdiccion, ha sido la de formalizar su cuadro estadistico intramural y extramural en los terminos que vera V.E. por los estados que acompañan con los numeros 1º, 2º y 3º, por ellos se hara V.E. cargo del fin desastroso que tubo este desgraciado pueblo en su ultimo sitio de 1835 al 1836, por cuyas vonbas ha quedado reducido a un monton de escombros, no existiendo mas que quince edificios malamente reconocidos y que no prestan comodidad alguna (...)*. Ondoren, berauek egindako laburpen zehatzean, hiribildu

(35) Hona dakargu agiri famatu hori: *M.N. y M. L. Provincia de Guipúzcoa. Para la mejor defensa de este punto se acaba de incendiar todo el barrio de Errerieta, incluso Aquerregui. Consiguientemente dentro de unas horas quedaran reducidos a cenizas cerca de cuarenta edificios. Lo comunico a V.I. para su inteligencia y efectos consiguientes. Dios guarde a V.I. muchos años.*

Guetaria a diez y seis de Diciembre de mil ochocientos treinta y cinco.

El alcalde Marcos Alcorta.

(36) Gipuzkoako Agiritegi Orokorra. Tolosa. JD IM 1/22/16. *Expediente relativo a la destruccion de la villa de Guetaria, durante la guerra civil, en los años de 1835 y 1836.*

barnean bizileku ziren etxe eta bertako biztanleak kalez kale zerrendatzen dira. Guztira 104 getariar besterik ez zen gelditu bizitzen hondamendi hartan. Handik hiru egun barruan herritar haiek idatzitako beste agiri batean gertatutako neurritz gainerako galeraren berri ematen dute: (...) *Una de las desgracias de mayor transcendencia que lamenta este infeliz pueblo, es la total desaparición de los documentos de su archivo y numeraria, y del registro de hipotecas, cuya falta irremediable, no podrá menos de hacer sentir sus funestas consecuencias a la riqueza territorial y vecinos propietarios cuyos bienes radican en esta jurisdicción (...).*


Mirariz, hainbesteko hondamendiaren erdian, harrigarria badirudi ere, *Humilladeroa* ez zen hondatu. Suteak hartu zuen ala ez ez dakigu. Agian harrizko egitura zuelako salbatu zen. Zutik iraun zuela baino ez dakigu.

Elkanok 1526an hil aurretik egindako bere azken borondatean, herriko eliza eta ermitak gogoan izan zituen, eta denei apaltasunez bere dohaintzak utzi zizkien. Urte gutxitan, 1795-1836 urte bitartean, lehenago deskribatutako gerrateak pairatu ondoren, Santa Kruz Zaharraren *Humilladeroa* eta *Salvatore Donea* eliza nagusia izan ezik, herriko eraikin historiko denak suntsitu eta desagertu egin ziren betiko³⁷.

Getariari 1875eko maiatzean bigarren Karlistada pairatzea suertatu zitzaion. Berrito karlisten eta liberalen eraso, bonbardaketa eta kontraera-soak jasan behar izan zituen, baina oraingoan karlistek ez zuten herria bereganatzerik izan. Gudaldia amaitutakoan *Humilladeroak* berriro ere mirakuluz suntsiketa gainditu eta zutik irautea lortu zuen.

Getariako herria ondorengo urteetan eta XX. mende hasieran eliza berritu eta hondakinak ezkutatzen saiatu zen. Herria berreraiki egin zen antzinako orubeetan eta XIII. mendeko harresiak bota egin ziren, eta zati bat estali ere bai frontoiaren ezker-pareta egiteko. Ondorioz, herriaren sarrera zabaldu egin zen, eta kale nagusia ireki. Aldaketa hauek ere, agian enbarazurik egiten ez zuelako, *Humilladero*ko iturri zaharra ez zuten ukitu, eta horrela historian aurrera jarraitu zuen, argazkietan ikusten dugunez.

(37) SORALUCE, Nicolas, 1872, *Historia de Juan Sebastián Del Cano*, Vitoria. XX zenb., 321-335. Elkanok aipatutakoetan, jakina, Askizuko San Martin eliza eta San Prudentzio ermita ere gerrate hauetatik onez atera ziren.



1935. Humilladeroa eraitsi zen urtean

1935. Eraisteko ala Suntsitzeko garaia

Atsedenezko urte batzuk igarota, berehala etorri zen bere azkena. Errepublikara garaian herriko sarbidea zabaltzeko, zabalgunee edo *ensanchea* egin ahal izateko eta ondoko zoruan etxeak eraikitzeko asmoa zegoen. Hori gauzatzeko, agidanez, *Humilladero* zaharra *oztopoa* eta *traba* zela argudiatu zen. Horregatik Getariako Udalak 1935eko abenduaren 28an, Inuzente eguna izaki, *Humilladeroa* eragozpena zela onartuz lurrera botatzea erabaki zuen. Egun hartako erabakia Getariako udaletxeko aktetan honela jaso zen, eta osorik dakargu hona beronek duen testigantza dela medio³⁸:

(...) Finalmente se trato del proyecto de ensanche de la travesia del pueblo y que examinando el proyecto redactado por el arquitecto sr. Mocoeroa que comprende desde la esquina de la casa Yruretagoyena

(38) Getariako Udal Artxibategia. 1935eko udal-aktak. 247- 250. or. Akta hauek eskuz idatzita daude. Zailtasunak izan ditugu zenbait zati transkribatzeko, baina jatorrizko dokumentua errespetatu dugu eta dagoen bezala jaso dugu. Lerro hauetatik eskerrak luzatu nahi dizkiot Getariako Udal Artxiboko arduradun den Juan Luis Urreizti jaunari, agiri hau eskuratzen laguntzeagatik.

a Sagatsaga y que afecta a tres edificios, uno el de la fuente vieja³⁹, otro el garaje del Sr. Marques⁴⁰ y el lavadero publico⁴¹, cuyo ensanche al considerarse de mucha necesidad y despues de detenido estudio y teniendo en cuenta que la Diputacion Provincial podria ayudar tambien a costear dicho ensanche el Ayuntamiento aprueba por unanimidad el referido proyecto y dispone que sin prejuicio de seguir las gestiones par llevar a cabo la totalidad del proyecto se debe e empezar inmediatamente el derribo del edificio de la fuente vieja que hace gran estorbo dado el lugar centrico en que se ha quedado.

El secretario con la venia del presidente hace observar: Que como no desconocen los señores concejales se acordo antes tambien el derribo del mismo con motivo de la construccion de la casa de los Yruretagoyena, pero que al alcalde de entonces le parecia prudente consultar con la Comision de Monumentos por si le concedieran meritos, por su estilo y construccion antigua, y quisiera dicha comision trasladar a otro lugar informando como consecuencia dicha comision provincial de Monumentos que el edificio por su bello estilo era digno de conservarse, i interes del sr. Gobernador se procurara su conservacion comunicandolo asi el Sr. Gobernador a la Alcaldia. Ahora bien, entiende el referido Secretario que su mision es advertir a la Corporacion si pretende adoptar un acuerdo ilegal y el que se pretende a su juicio no se puede considerar ilegal ya que el edificio de referencia es propiedad del Ayuntamiento como consta en los inventarios y no esta declarado Monumento nacional por lo que no esta catalogado en la riqueza artistica pero por las intervenciones que ha dado lugar este asunto considera prudente estas observaciones al Ayuntamiento aunque reconociendo siempre que ello es de exclusiva competencia del Ayuntamiento y con mas razon por estar comprendido dentro de un proyecto de ensanche aunque a su juicio el acuerdo del proyecto de ensanche no es ejecutivo inmediatamente, por lo que pudieran impugnar.

El Ayuntamiento despues de escuchadas estas advertencias viendo (...) en que es de mucha necesidad y de urgencia el derribo de dicho edificio y despues de amplio debate en el que todos opinan de la misma manera acuerda proceder a su derribo, sacando previamente fotografias de sus

(39) Fuente Vieja erdarazko itzulpena da, Humilladeroa herritarren ahotsean Iturri Zaharra deiturikoa zen.

(40) Getariako markesa Aldamar leinuaren jauregiko oinordeko Casa-Torres markesa deiturikoa zen. Fabiola Belgikako erreginaren aita zena, hain zuzen.

(41) Lavadero publico hau XVIII. mende bukaeran, Konbentzioko gerran frantsesek suntsitu zuten Madalenako ermitaren orubean egin zen, orduko alkate On Manuel Agote zenaren aginduz.

vistas y colocando la piedra de arcos (?) marcado y en orden para que si alguien tuviera interes en reedificar pudiese hacerlo y se encargo para dirigir este trabajo al concejal Sr. A...(...).

Hau gauzatu eta burutu arte, salaketa ugari izan ziren. Orduko prentsan eta aurrez aurre hainbat pertsona jakitun eta esanguratsuk ez botatzearen alde jendaurrean eta ozenki aldarrikatu zuten beren iritzia. Lan apal honek, orimen gisa bada ere, beren jokabide ohoretsuaren aipamena egin nahi luke lerro hauetan eta, besteak beste, ondoko hauek aipatuko ditugu: **On Joakin Irizar** arkitekto eta euskal artean aditu zenak erabaki haren aurka txosten argigarria azaldu zuen; Gipuzkoako Monumentuen Batzordeko arduradun eta arkitekto zen **On Frantzisko Urkola**, zeina Getariako udalarekin maiz bildu baitzen erabakia alda zezala erregutzeko; **On Inazio Zuloaga** eibartar pintore ospetsua eta, nola ez, Getaria hainbeste maite zuen **On Julio Beobide** eskultore zumaiarra (beren kexa eta arrangura garratzak Getariako Udalarari luzatu zizkioten erabaki haren aurka). Dena alferrik izan zen. Guztien iritzia muzin egin ondoren lurrera bota zuten “azkar eta ordu gutxian” herriko *Humilladero* zaharra. Eta zinez gaitza badirudi ere, hori Errepublikara garaian eta denen begien aurrean gertatu zen.

Eraitsitako Erdi Aroko *Humilladeroaren* harri landuak kokagune inguruan zegoen orube bateko bazterrean pilatu zituzten, eta han egon ziren 1939an azkeneko Gerra Zibila amaitu zen arte. Francoren garaipe-narekin faxismoa eta autarkia beltza zabaldu zen gure bazter guztietan. Zumaiako udalak frankismoaren alde hildakoentzat herriko sarreran oroitarri edo eraikin antzeko bat egiteko asmoa izan zuen. Zuloaga oroitu egin zen Getariako *Humilladero*ko harriak lurrean botata zeudela, eta Zumaiako udalari, harri haietaz baliatuta *Humilladeroa* berreraiki edo antzeko eraikina egitea gomendatu zion. Berehala, Zumaiako udala Getariako udalarekin harremanetan hasi zen, eta harri hondakinak lortzeko eskabidea egin zion. Getariak besterik gabe onartu ondoren, agian begien bistatik kentzearren, Zumaiako udalari Getariako *Humilladeroaren* “harri zahar” haiek opari eman zizkion.

Ondoren, *Humilladeroaren* harri zaharrak Zumaiara eraman zituzten oroigarria egiteko, baina aldi berean udal honek beste burutapen “argi bat” gauzatzeko erabakia hartu zuen. Getariako harri haiek ezkutaleku batean pilatuta Zumaiara bertan nonbaiten laga zituzten. Denbora igaro ahala, urteen joanean “harri zaharrak” edozeinen eskura eta baliagarri izan ziren, multzoa



Humilladeroaren barnean atzeman daiteke “Iturri Zarra”

apurka txikiagotu egin zen, baina, hala ere, urteen poderioz lar eta sasiak estali egin zuten eta harri multzoa salbatu egin zen.

Handik urte batzuetara, gure uste apalean, sentikortasun bereziko pertsonaia jakitun eta historian aditu zen On Inazio Aginaga Telleria kezkatu zen harriez. Urte askotan Getariako udal-idazkari izan zen, eta hari zor zaio Santa Kruz zaharraren arrastoen ardura izana. Ikerketa luze eta korapilatsua-
ren ondoren, 1954. urtean harri zaharren kokalekua aurkitu eta haiek Getariara itzultzeko bidea egin zuen.

Urteak joan eta urteak etorri, *Humilladeroko* harri bedeinkatuak herriko frontoiko atzealdeko *Arritarte* deritzon gunean, *Aldamar* dorretxearen ondoan, hantxe egon ziren pila utzita. Herriko beste hainbat lehentasun eta diru ezak eraginda, On Ignazio Aginagaren *Santa Kruz Zaharra* berreraikitze proiektu urteak igaro ahala atzeratu, ahuldu eta antzutu egin zen.

Harri pila hura gure belaunaldiko haur eta umeen jolasleku izatera ere iritsi zen, eta zirrikitu haietan galtzen ziren frontoitik ihesitako pilotak. Denborarekin harriak urritu egin ziren, eta, edonoren eskura zeudenez, beste behar batzuetarako baliatu ziren inolako begirunerik gabe eta ia inor ere ohartu gabe.

1978an Getarian udaletxe demokratikoa osatu ondoren, udalak, herritar batzuen aholkua aintzat hartuta, *Arritartean* gelditzen ziren harri-hondar haiek zenbatu eta San Anton mendira eraman zituzten. Bertan, herritarrok hirugarren “plazoleta” izenez ezagutzen dugunaren erdian kokatu ziren. Han egon ziren urteetan harri landu haiek bakean beren historia eta Getariako historia pasadan edo begira zegoen edonori kontatzeko. Ondoren harri haiek izan zuten ibilbi-dearen berri ematea ez dagokigu guri.

Azken hitzak

Egunen batean, agian, *Santa Kruz Zaharraren Humilladeroa* berreraikitze utopia eta gogo gaizatuko dira. Egunen batean, agian, On Inazio Aginagak Getariarentzat berreskuratutako harri zaharrak tolestu eta galdutakoak berregin ondoren, ametsa egia bihur daiteke. Egunen batean, agian, gure aurrekoek *Humilladeroa* eraikitzean izandako *emandako hitza errespetatzea* asmoa eskuratu egingo dugu, eta historiak gure herriari suntsiarazi diona berreskuratu egingo genuke.

Guk ere hark zioena diogu, eta aitortzen jarraituko dugu: *Humilladero zaharraren historia dakiguna da, irakurri eta ezagututakoa, ikusi eta bizitakoa. Gelditzen zaigu harriek hitz egingo baligute kontatuko litzaigukeena jakitea. Entzutea pozgarria izango zen benetan. Zenbat sekretu eta zenbat egi joan dira berekin!. Hori bai izango zela garrantziko historia!*⁴².

Fernando Txueka Isasti.

2008ko urria. Udazkena, mahats-biltze eta antzarren bidaiatze garaia

(42) Getariako Santa Kruz Handia edo Zaharraren 1976ko lantxoan, gure aita Pedro Chueca Echaniz zenak jasotako eskuizkribu mekanografiatu bat, gordea nuen. On Inazio Aginaga herriko idazkari izan zenak, lan hori egin zuen bederen, eta beronek eman zion fotokopia bat gure aitari.

Hainbat urteren buruan, Donostiako Koldo Mitxelena Liburutegian lan hauxe aurkitu nuen, baina dirudienez gure aita zenak lan honen kopia bat bere adiskide Jose M^a Busca Isusi gastronomo eta euskaltzaleari oparitu zion. Azaleko orrian Angel Gorostidi getariar legegizon eta historialariaren esaldi bikaina dago: *Dama es la Historia que recorre su camino entre dos peligros: O ser arrastrada por la pasión que la proximidad del hecho en consorcio con la humana debilidad nos ciega, o caminar entre sombras y nieblas que el alejamiento acumula sucesivamente.*

Gure aita zenaren eskaintza honela dago bere eskuz idatzita: ***La Historia del Humilladero de Santa Cruz –Guetaria– Atención que recibí de Dn. Ignacio Aguinaga Telleria (q.e.p.d.) le recuerdo agradecido. Y a la vez ofrezco a Jose Mari Busca Isusi.***

Pedro Chueca
11-12-1983